

**EUSKAL ERAKUNDEEK ERAGINKORTASUN ERRESERBA
LORTUKO DUTE, EBak 2000-2006 PROGRAMATZEKO
DOKUMENTU BAKARRA KUDEATZEKO ESKATZEN DITUEN
BALDINTZAK BETETZEN BAITITU**

PDBaren ebaluazio txostenaren arabera, 2 Helburuko eskualdeen artean Euskadi da Europako diru laguntzak Programatzeko Dokumentu Bakarra hobekien kudeatzen duen eskualdea

Europako Batzordearen 2001ko martxoaren 7ko 252 zk. Erabakiaren bitartez onartutako PDB-ak, dokumentu bakar batean 2000-2006 iraunaldian Euskal Autonomi Erkidegoaren hiru lurraldeetan Funts Estrukturalak erabiliz finantzatuko diren ekintzak laburbiltzen du. Dokumentu honetan jasotzen diren ekintzak, Helburu 2 denaren zonalde iraunkorren eta aldi baterako diru laguntzak lortu dituzten zonaldeetan (euskal hiru hiriburuak) gauzatuko diren ekintzak zehazten dira.

2003 urtean zehar, Europako Erkidegoak 1260/1999 zk. (EE) Arautegiaren 42.artikuluaren bidez exijituta, PD Bakarraren ebaluazio txostena egin zen. IKEI aholkularitza-enpresak egindako txostenaren arabera *"ebaluazio honen emaitzek, orokorrean egitarauaren garapen baikorra eta egokia erakusten dute, bai artikulazio estrategiko instituzionalaren funtzionamenduan, bai ekintzen exekuzio finantzario eta fisikoen ebaluazioan, Euskadiko eboluzio ekonomikoarengan eragina nabaria lortuz."*

PDB-aren EZAUGARRIAK

PD Bakarrak jasotzen dituen proiektu eta ekintzak bost ardatzetan banatuta daude zuzenduta doazen sektoreen eta ekintzen helburuen arabera. Honela, Programatzeko Dokumentu Bakarraren egiturak oinarri dituen bost ardatzak hurrengoak dira:

1º Ardatza. Lehiakortasuna, enplegua eta produkzio-ehunaren hobekuntza.

Ardatz honetan agertzen diren ekintzak lehiakortasuna, euskal produkzio-ehunaren garapena eta bere ekonomiaren estrukturan

dibertsifikazioa hobetzera zuzenduta daudenez gero , ardatz honen protagonista nagusiak enpresa txiki eta ertainak ETE dira.

Lehenengo ardatzean agertzen diren ekintza guztien artean, Euskal erakunde Publikoek Inbertsiorako Laguntza Programak azpimarratu daitezke, laguntzak eta abantailak emanez, ETEei finantza baliabideak erraztu baitzaie.

- 2. Ardatza. Ingurugiroa, ingurumen naturala eta baliabide hidrikoak.

Euskadiko ingurugiroaren babesa eta zaintzea dira ardatz honetan zehazten diren neurrien helburua, gure ingurumenarekiko errespetua eta garapen jasagarria lortzearren. Bigarren ardatz honi zuzendutako baliabide gehienak uraren saneamendu eta garbiketarako izan dira.

- 3. Ardatza. Ezagumenaren gizartea.

Azpiegitura teknologikoak bultzatzea, Programatzeko Dokumentu Bakarraren helburuetako bat denez gero, eskaintza teknologikoa osatzen duten agente guztien artean teknologia sortzea, garatzea eta hedatzearen beharra azpimarratu da, eta batez ere Ikerketa+Garapena+berrikuntzarekin (I+G+b) lotura duten ekintzak bultzatuz.

- 4. Ardatza. Komunikazio eta energia sareak.

Laugarren ardatzaren bitartez, PD Bakarrak azpiegituren betebeharrari garrantzia ematen dio eskualdearen garapenean ezinbesteko giltza gisa, eta garraioaren politikari bereziki. Horregatik PD bakarrak lurraldearen konexioak hobetzera zuzendu diren ekintzak jasotzen ditu.

- 5. Ardatza. Udal eta hiri garapena.

Zenbait udal herritan gabezi jakin batzuk jasaten direnez, euskal gizartearen garapena erraztea eta hobetzea dira ardatz honetan jasotzen diren ekintzen helburuak. Beraz, udal eta hirigunetako ekipamenduak birgaitzea, hiriko garraio sistemak hobetzea, azpiegitura sozialak, turistikoak eta kulturalak eraikitzea eta udal-garapena bultzatzeko ekimenak dira.

**PD BAKARRAREN EKINTZA NAGUSIAK
PRINCIPALES ACTUACIONES DEL DOCUP**

IZENA DENOMINACIÓN	ERAKUNDEA INST.RESPON.	INBERTSIOA 2000-2006	EGEF FEDER
EJE 1		224.815.416	112.407.708
INTEK innovación tecnológica	G.V.	79.870.450	39.935.225
Mercedes Benz	G.V.	26.075.354	13.037.677
Convenios de promoción económica	DFA	2.190.808	1.095.404
Servicio de apoyo emprendedores	DFB	1.681.336	840.668
Programa Txekin	DFG	6.447.098	3.223.549
Mejora de condiciones de financiación de empresas	GV	58.728.274	29.364.137
Apoyo a la internac. y promoción exterior	GV	13.261.226	6.630.613
EJE 2		157.083.482	78.541.741
Mejora <u>abastecimiento, saneamiento y depuración aguas</u>	G.V. + DDFF	105.309.240	52.654.620
Armiñón-Rivabellosa			
Cuenca Nervión			
Cuenca Butrón			
Saneamiento Ordizia			
Depuradora Elgoibar			
Colector Herrera- Lolola			
EJE 3		128.876.568	64.438.284
<u>Proyectos de investigación, innovación y desarrollo tecnológico</u>	G.V. + DDFF	44.687.452	22.343.726
Programa ETORTEK			
<u>Creación, potenciación centros públicos investigación</u>	G.V.	77.355.310	38.677.655

EJE 4		341.135.635	103.278.270
<u>Carreteras y Autovías</u>	DDFF	165.420.056	49.626.017
Acondicionamiento carret. Alava	DFA		
Corredor cadagua	DFB		
Durango-Beasain	DFB		
Desdoblamiento Etxegarate	DFG		
<u>Ferrocarriles y metro</u> Línea II Metro Bilbao	G.V.	149.992.263	44.997.679
<u>Puertos</u> Mejora puerto Mutriku	G.V.	21.035.420	6.310.626
EJE 5		105.512.784	52.756.392
<u>Rehabilitación y equipamiento zonas urbanas</u>		39.435.436	19.717.718
Desdoblamiento tubería suministro Vitoria			
Apeadero RENFE Amurrio			
Urbanización plaza Llodio			
Recuperación casco hº Ataun			
Mejors acceso escaleras Eibar			
Reurbanización Ría Molinao			
<u>Infraestructuras turísticas y culturales</u>	DDFF + AYTOS	14.772.470	7.386.235
Museo vasco arte contempor.Vitoria			
Locales culturales SS			
<u>Formación ocupacional y agencias desarrollo local</u>	G.V. DDFF AYTOS	24.789.422	12.394.711
Mejora centros FP Álava	Centro ocupacional Hernani		
Infraestr. Telecomun Ermua	Cibercentro Irun		
Desarrollo local y urbano	Bilbao Ría 2000	34.537.664	17.268.832
<u>Rehabilit. y equipamientos zonas urbanas</u>		25.752.282	12.876.141
Abandoibarra 2ª fase			
Galindo 2ª fase			
<u>Mejora transporte urbano</u>		8.785.382	4.392.691
Variante Sur 4ª fase		8.785.382	4.392.691